



194. zenbakia

· OTSAILA 2020 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra, Patxi Irurtzun eta Eneko Tuduri.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.600 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Atezko lhoteak izan ziren otsailaren 29an. Egilea: Jon Aizkorbe

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira martxoaren 6an bidalia



Gure amak

*“ Gure amak sei beso ditu;
horietako bat otorduak prestatzeko,
beste batekin, arropak lisatzen ditu
gu apain ibiltzeko.
Badu beste bat, omen laztantzeko.
Gure amak ganbara garbitzen du,
leihoetako lorontziak ureztatu,
ohatzeak, harrikoa...
Gauetan, ez dut uste baina,
dioenez, ez da sobera nekatu.
Gabonetan, opariak erosi ditu
guztiondako,
berak ez du deus behar
denetarik baduelako.
Sendagilearen iritziz,
bularrean atera zitzaion hanpadura
bihotza bultzaka da,
barnean kabitzen ez zaiolako ”*

Joxe Jabier Elizalde



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra





Fabiola García de la Peña,

“Pena ematen dit udalean jende gehiago ez sartzea, beti berberak daude”

Fabiola García de la Peña Razkin, 57 urtekoa, Ostitzen bizi da duela 15 urte. Alabekin eta lagun batekin etorri zen Iruñetik, animalia askorekin bizitzeko aukera ematen ziolako, beharbada. Izan ere, 6 txakur, hainbat katu, eta oiloak ditu, besteak beste. Zaldiak eta agaporniak ere izan ditu, lehenago. Salesianos ikastetxean irakaslea eta Odietan zinegotzia da. Orain ere, gainera, Ostizko Pulunpe banatzaile berria. Mari Carmen Eritzeri hartu dio lekukoa.

• NOIZ HARTU ZENION LEKUKOA MARI CARMENI ETA ZERGATIK?

Legealdi berriarekin, maiatza inguru horretan. Herriarendako zerbitzu bat da eta orain arte berak egiten zuenez, bada, lekukoa hartzea erabaki nuen. Nahiz eta, penaz aitortzen dut, nik euskaraz ez dakit...

• FABIOLA, ZU KANPOTIK ETORRI ZINEN, NOIZ?

2005eko azaroan etorri nintzen, aurtan, beraz, 15 urte eginen ditut hemen. Ni Iruñekoa naiz, baina, dena dela, animaliak eta landa oso gustukoak ditut. Horregatik, herri batean bizi nahi izan dut beti. Nire gurasoek aspalditik zuten lursail bat hemen, Ostitzen, eta horregatik jakin izan nuen etxe bat saltzen zutela. Anaia eta bion artean erosi genuen etxea, eta nik zati hau zaharberritu nuen. Bestea oraindik egin gabe dago. Eta gustura, ni oso herrikumea naiz.



▲ Likenenean, bere etxean, hartu gintuen Fabiolak

• UDALEAN ERE ARITZEN ZARA, EZTA?

Bai, aurtan zinegotzi naiz bigarren aldiz. Duela urte batzuk sartu nintzen udalean, baina larri ibili nintzen estresarekin, eta utzi nuen. Honetan, berriro animatu naiz. Pena ematen dit jende gehiago ez sartzea. Udaletxekoa, gehiago txandakatu beharko genukeen lan bat dela iruditzen zait. Izan ere, beti berberak egoten dira. Horrela guztiok ikusiko genuke udalaren kudeaketa zer den.

• ETA HASI BERRI DEN LEGEALDI HONETAN, ZERTAN ARI ZARETE?

Orain Internet inguruko gauzak ari gara aztertzen, gehienbat. Zuntz optikoa jartzeko negoziaketetan ari gara.

• IRAKASLEA ZARA, EZTA?

Bai, Salesianos ikastetxean irakasten dut Matematika, Fisika eta Kimika, Biologia... zientzietako guztiak. Baita oinarritzko lanbide-heziketan ere. Ostitza etorri ondoren hasi nintzen. Lan atsegina da, zailtasunak dituzten ikasleak aurrera egitea lortzen duzunean, batez ere.

• EUSKARA IKASI EZ IZANAK PENA HANDIA EMATEN DIZULA ESAN DIDAZU...

Bai, bai. Aitonak euskaraz egiten zuen, baina garai haietan, arazorik izan ez zezaten, ez zien erakutsi alabei. Bederatzi alaba zituen. Hor galdu zen transmisioa etxean.

Auzako Erdi Aroko altxor ezkutua

Erabat ezezagunak dira Auzako San Martin elizan dauden Erdi Aroko margoak. Seguruenik ia guztiz galduta daudelako, eta haien kokalekuarengatik. Hala ere Iruñetik iparraldera dauden Erdi Aroko horma margo bakarrak dira, Orreagako kriptakoak izan ezik.

Margoak, arriskuan

Margoak ezezagunak izatearen arrazoi nagusia bere kokalekua da. Lehenengo Auzako San Martin eliza Erdi aroan eraiki zen, segur aski XII. mendearen bukaeran edo XIII. mendearen hasieran (Silva, 1978, p. 499).

XVI. eta XVIII. mende bitartean eraiki zen gaur egun dagoen eliza. Horretarako Erdi Aroko eliza suntsitu zen, absidearen pareta laua izan ezik. Pareta hau gaur egungo apez-etxearen kanpoko pareta da eta hortxe daude Erdi Aroko margoak, patio txiki batean, sakristiaren (elizaren) eta apezetxearen tartean (Ibidem). Patio honek ez dauka sabairik eta ondorioz margoak zerupean egon dira mendeetan, eguraldiaren menpe (Martinez Alava, 2015, p. 398).

Hezetasunak eta gizakiaren suntsiketarik oso kaltetuta utzi dituzte margoak. Nafarroako Erdi Aroko horma margo bakarrak dira zerupean daudenak, eta desagertzeko kinka larrian jarraitzen dute. Babestu beharko lirateke nolabait, lehenbailehen, betiere Prinzipe de Vianaren eta profesionalen argibideak jarraituz.

Irudiek adierazten zutena

Sol Silva de Verastegi arte historialaria margoak aztertzen lehena izan zen 1978. urtean. Silvak azter-

tu zuen nola bi lerro horizontaletan banatzen ziren bi eszena. Beheko lerroan Ama Birjin bat dago bere tronuan eserita, baina umetxorik gabe. Besoak altxatzen ditu eskuazpiak erakusten: Ama Birjin ototzari bat. Bere inguruan togadun figura ugari daude. Bakar bat identifikatzen ahal da: San Pedro bere giltzekin. Seguruenik beste figurak apostoluak izango ziren eta giza-terriako erregeak eta agintariak, denak batera Ama Birjina miresten (Ibidem, p. 504).

Bigarren lerroan, goian, berriro Ama Birjina agertzen da tronuan eserita baina orain umetxoarekin, erromaniakoan hain berezkoa den eszenan (Ibid). Bere ezkerretan lau figura korodun agertzen dira zutik eta beste bi eserita. Goiko lerro honetan aurkitzen dugu Ama Birjinaren eta Kristo gurtzearen eszena bat.

Carlos Martinez Alavak 2015ean berriro aztertu zituen margoak, eta leiho erromaniakoaren eskuinaldean deabru eta kondenatu batzuk



Apez-etxearen kanpoko pareta da, eta hortxe daude Erdi Aroko margoak ▲



identifikatu zituen. (Martinez Alava, 2015, p. 398). Hau da, iritsi zaigun margotutako pareta bakarrik sekzio txiki bat da. Ezkerraldean Ama Birjina baldin bazegoen eskuinaldeko deabruak infernuko eszenak bazeudela adierazten digu (Ibid). Hauen gainean seguruenik Jaungoikoa egongo zen, Maiestas Domini bat. Eszena guztien irakurketa Azken Judizioa izango litzake, gizateriaren epaiketa eguna. Kristau onak (Ama Birjina gurtzen zutenak) zerura joango ziren eta bekatiariak infernura.

Kronologikoki margoak Sol Silvak 1300. urtearen inguruan kokatu zituen eta Martinez Alavak XIV. mendearen erdialdean. Azken erromani-ko eta lehen gotikoaren estiloen

artean hain zuzen.

Zati bat, desagertua

Zoritzarrez, 1978 eta 2015. urteen artean margoen zati bat desagertu da. Alegia lehen lerroko Ama Birjina tronuan, San Pedro eta hauen eskuineko hiru togadun figura. Segur aski norbaitek sekzio hau moztu eta lapurtu du 1978-2015 tartean.

Oso kaltetuak egon arren San Martin de Auzako horma margoek beren balioa dute. Auzako San Martineko margoak Ultzamako Erdi Aroaren arrasto garrantzitsuak dira, eta Auzako eliz erro-
manikoaren aztarna bakarra. Oso garrantzitsua iruditzen zait Ultza-
matarrek altxor honi buruz jakitea,

“
**Nafarroako Erdi
Aroko horma margo
bakarrak dira,
eta desagertzeko
kinka larrian
jarraitzen dute**
”

Nafarroako Gobernuak erakundeak babestea eta baloratzea lehenbait-
lehen, gehiago galdu baino lehen.



Eneko Tuduri

Arte Historian graduatua EHUn



▲ Margoen arrastoak, gertuagotik



Treintate eguna

Laster, Treintate eguna izanen dugu, eta imoztarrok Ergamendiko ermitara eginen dugu prozesioa.

Joan den 30 urtean Jose Joakin Gartzaron, Oskozko Maritonebeitikoak eraman digu otamena. 1990. urtean hasi zen lan horrekin. Aurretik bakoitzak berea eramaten zuen, baina urte horretan Udalak otamena ematen hasi zen. Hala esan digu Joxe Joakinek: "geroztik urtero-urtero, behin ere huts egin gabe eraman izan diat. Bai, urte batez eguraldi txarrarengatik ez huen prozesiorik izan"

Hainbeste urtez lan hori egin eta zer nola ibili den galdetu diogu: "ongi, baina 2018an izan genian istripua, traktorea bidetik atera eta itzuli erdia eman-eta. Denadela, ez genian inork minik hartu, zorionez!"

Eraman ez ezik, otamena prestatu ere egin behar izaten da, txistorra eta urdaia, eta lan hori bere senideek egin izan dute, borondatez, eta ez da gutxi. Hainbes urtez eta hutsik egin gabe!

Baina, denak du bukaera eta iaz egin zuten azken urtea.

Aurten lan hau hartuko duenik izanen ote dugu? Ea norbait animatzen den, Joxe Joakinek egin dituen urte erdiak egiteko bada ere!



▲ Maritonebeitikoak beste oskoztar batzuen artean Ermita atarian.



▲ Goitin, erremolke gainean: Bixente, Jose Joakinen anaia, Beheiti Joseba, Jose Joakinen semea. Jose Joakin Gartzaron (Maritonebeitiko nagusia) Cristobal, J.J.nen anaia. Idoia, J.J.nen alaba.



Martxoaren 8a berriz ere aldarrikapenez betetzeko deia egin dute eskualdeko emakumeek

Azken bi urteetan ez bezala, aurtengoan Euskal Herriko Mugimendu Feministak ez du grebara deitu martxoaren 8an, baina grebarik izan gabe ere beste behin kaleak hartzeko deia egin dute. Gure eskualdean, azken urteetako dinamikarekin jarraituz, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna kaleak aldarrikapen feministez betetzeko aprobetxatuko dute. Otsailaren 13an izan zuten eskualdeko emakume feministek aurtengo M8a antolatzen hasteko lehen zita. Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik egin zuten lehen dialdi hori, eta eskualde osoko emakume talde polita hurbildu zela azaldu ziguten irratian.

Hurrengo asteetan prestaketekin jarraitu dute, eta martxoaren 8an izanen diren ekimenak ezagutzera eman dituzte honezkero: martxoaren 8an goizeko 9:30ean jarri dute zita Latasako frontoi parean, Plazaolako Biltegian. Handi bi zutabe aterako dira Irurtzun aldera: bata Plazaolako bidetik eta bestea arrantzaleenetik. Ordu pasatxo oinez eginda, berriz

Irurtznen elkartuko dira eta han eguerdiko 12:00etan izanen den manifestazioan hartuko dute parte eskualdeko emakumeek. Arratsaldean, herri eta hiri handiagoetako manifestazioetara batzeko deialdia egin dute.

Martxoaren 8a baino lehenago ere egonen dira ekimenak, dena den. Martxoaren 7an, larunbatekin, 12-16 urte bitarteko neskentzat ahalduztze tailerra egingen dute Basaburuko Kultur Etxean, Aizarotzen. Odietan ere, martxoaren 7an deitu du jai eguna Udalak: 12:00etan ibilbidea egingen dute udaletxetik aterata, 14:30ean Erripako Kontzeju Etxean bazkaria egingen dute, eta amaitzeko, arratsaldeko 17:00etan Virginia Senosiainekin Gerbera antzerki saioa izanen dute.

Martxoaren 8aren bueltan eskualdean antolatu diren ekimen guztiak ikusteko, bisitatu amezti.eus/agenda-atala!

▼ Ana Galarren bineta



▲ Eskualdeko emakumeak iazko greban





AEKren eta IK Aren laguntzarekin egindako atala

Euskara
errazeko
artikulua

Martxoaren 28an ospatuko da aurtengo Rugby Gaupasa

Nork dio ezin direla kirola eta jaia uztartu? Horretan ari dira duela urte mordoxka batetik Baztan Rugby Taldeko lagunak, Rugby Gaupasa antolatzen. Gure eskualde honetan ospe dezente hartua du errugbiaren aldeko festa honek. Ezagutzera eman berri dute aurtengo jaiaren data: martxoaren 28a. "Maila ezberdinetako errugbi taldeak aurrera ateratzeak gastu dezente suposatzen du, eta horregatik hasi ginen gaupasa antolatzen. Diru pixka bat ateratzeko", azaldu zigun Mikel Eugi jokalaria Esan Erran irratian.

Azken urteetan bezalatsu, aurtengo festa ere Larraintzarko frontoian egingen dute. Zikiro afariarekin hasiko dira, eta ondoren, afalondoa alaitzeko kantu zaharrak abestuko dituzte Leire eta Arkaitzek lagunduta. Mahaitik zutitzeko aitzakia paregabea izanen dute jarraian: zonaldeko Los Tajudos del Norte mariatxi taldeak dantzan jarriko ditu bertaratutako errugbizaleak. Segidan Trikidantzek ere kontzertua eskainiko du. Baina ez pentsa horrekin bukatuko denik festa... Ez, ez, kontzertuen ondotik oraindik gogo eta indarrak dituzten horientzat DJa izanen da, parranda goizalde arte luzatzeko.

Aurreko edizioetan arrakasta handia izan du festa egun honek,

eta Eugik azaltzen zigunez, aurtengoak ere erantzun ona izatea espero dute antolatzaileek: "Lan asko da egun hau prestatzea, baina azken urteetan jende asko eta oso giro onean elkartu gara rugby gaupasetan, eta horrek poza ematen digu".



Hiztegia

Uztartu: Complementar

Ospe: Fama

Arrakasta: Éxito



Euskara errazeko artikuluak

AEKren eta IKAre laguntzarekin egindako atala

Azalpena

DEKLINAZIO MUGAGABEA: Zer da? Noiz erabiltzen da?
Deklinabide mugagabea, izendatzen dena ez-zehatza edo ezezaguna denean erabiltzen da:

- **Jokalaria** lesionatu da. (singularra) Gazteleraz "el jugador"

- **30 Jokalaria** rugby zelaira atera dira. (plurala) Gazteleraz "los 30 jugadores"

- **2 jokalar**i lesionatu dira. (mugagabea) Gazteleraz "dos jugadores".

Mugagabea desberdina da deklinabide kasu bakoitzean eta deklinatu behar den hitzaren azken letraren arabera, hau da, bokalez edo kontsonantez bukatzen den. Adibidez, Norekin kasuan:

- Jokalar**AREKIN** etorri naiz. (singularra) "con el jugador"

- Jokalar**EKIN** etorri naiz (plurala) "con los jugadores"

- Hiru jokalar**REKIN** etorri naiz. "con tres jugadores"

Noiz erabiltzen da mugagabea?

1.- IZEN BEREZIAK

Izen bereziak beti mugagabean deklinatzen dira: EtxeaAN, mendiAN, kaleAN.....baina GaskueN, AritzuN, BerueteN, ErasoN..

KanpinEAN, parkinEAN....baina EtulainEN, IraizotzEN, EguaratsEN, OskotzEN..

MedikuAK, agureAK, neskatoAK....baina PatxikuK, EdurneK, IzaroK....

2.- ZENBAKIAK

Zenbakiekin batera jartzen diren izenak, pluralean deklinatzen dira ezagunak direnean, baina ezezagunak direnean, edo lehenengo aldiz erabiltzen direnean, mugagabean deklinatzen dira.

Hiru liburu irakurri ditut "tres libros"

Hiru liburuak gustatu zaizkit "los tres libros"

3.- ZER, ZEIN, ZENBAT GALDETZAILEEKIN

Arestian esan bezala, mugagabearekin ezagutzen ez dugunari egiten diogu erreferentzia. Eta galdetzen dugunean ezagutzen ez dugunaz ari gara galdezka.

Beraz, hiru galdetzaile hauekin batera doazen izenak beti deklinatzen dira mugagabean:

Zer ordutan pasten da autobusa Olaguetik?

Zein musika taldek izan zuen arrakasta gehien iaz?

Zenbat etxetara ailegatzen da pulunpe?

4.- ASKO, BATZUK, EDOZEIN, GEHIAGO, GUTXIAGO, HAINBAT, ZENBAIT, PILA BAT...

Hauekin ere argi dago: zehaztugabeak dira, badakigu batzuk edo asko direla, baina ez zenbat, ez zeintzuk. Beraz hauekin batera doazen hitzak (aurrean edo atzean), mugagabea doaz beti:

Edozein tokitan aurki daiteke liburu hori.

Zuberoako **zenbait** herritan egin dut parranda.

Ardo(-) **gehiago** nahi duzue?

5.- ZENBAIT ESAMOLDE BEREZITAN

- Likidoen izenekin: ur, esne, ardo...

Uret**ara** erori da.

Ogia ard**otan** busti du

Gaileta esnet**ara** erori zait.

- **Elur, belar, su, ke, argi**...hitzekin:

Ultzamako jubilatua elurret**ara** joan dira asteburuan.

Paper zahar guztiak sut**ara** bota ditut.

Jolas-orduan belar**retan** etzan gara

Egun argit**an** larrua jotzen ari ziren parke erdian gustura asko..

- **Ezker, eskuin, leku, toki**...

Ezker**retara** jo behar duzu.

Tokit**an** dago jatetxea.

- Modua adierazten duten zenbait esapidetan:

Umea lot**an** dago, zurekin zor**retan** nago, amets**etan** dago....

- Bizitzaren aroak adierazten dituzten **ume, txiki, gazte**....bezalako hitzekin.

Umet**atik** dakit hori, gatzet**an** egon nintzen, txikit**an** oso futbolzalea nintzen...



Jendetza bildu da beste urte batez Lanzko Ihoteetan

Urteroko moduan asteartea, azken eguna izan da hiruetatik jendetsuena Lantzen. Hamaiketakora jende asko batu zen goizaldean, eta Ostatuan lehen aldiz zortzikoa dantzatu eta gero ganbaran ekin zioten ihoteetako mozerro ohikoak prestatzeari: ziripotek sortzen du ikusmira gehien, zakuak lastoz nola betetzen zituzten ikusteko jende ugari bildu zen ganbaran. Goizean eguraldiak ateri eutsi bazion ere, eguerdi partean, kalera ateratzekoak zirenean, euria hasi zuen. Eguraldi kaxkarrak ez zuen ordea giroa zapuztu. Aipatzekoa da bezperan, astelehenean, Lanzko ihauterietara urtero-urtero etortzen diren Iruñeko txistulariak omendu zituztela beraien 25. urteurrena zela eta.

Ferratzaileak, txatxoak, ziripot, zaldikoa, Miel Otxin... guztiak atera ziren plazara eguerdiko ordu biak aldean, eta herritarrek zortzikoa berriz ere nola dantzatzen ikusi zuten. Herriari itzulua egin eta gero bazkaltzera bildu ziren guztiak berriz. Arratsaldean, goizean bezalatsu, mahaiaren bueltan zortzikoa dantzatu eta gero plazara atera ziren berriz. Amaiera jakina da: Miel Otxini bi tiro bota eta sutan erre zuten herritarrek.



Miel Otxin ganbaran, arratsaldean erreko zuten ▲

Zurezko Tallak

— ESKUZ EGINDAKOAK —

Tailuzko eskulan desberdinak / *Todo tipo de trabajos en talla*

Etxeen izenak / *Nombres de Casa*

Eguzkiloreak / *Cardos de Brujas*

Ongietorriak / *Bienvenidas*

Esekilekuak / *Percheros*

Armarriak / *Escudos*

Ikastaroak / *Cursos*

— MIKEL OKIÑENA [ETXALEKU] —

618 3520 14 [WHATSAPP] - geroarte@ymail.com

Salazar inkisidorea erre dute Anotzibarren

Otsailaren 22an ospatu zituzten ihoteak Anotzibarren. Eta, noski, beste behin ere erre dute Salazar inkisidorearen panpina. Arratsaldeko 17etan hasi zuten antzezpena, "Garai ilunak Anotzibarren" izenburupean, argazkian dituzue protagonistak. Historia iluna bada ere, izugarritzko eguraldi ona izan zuten Odietako ihote ospetsuetan, eta giro onean ibili ziren.

Anotzibarko biztanleek bidalitako gutun batean azaldu ziguten istorioa:

"On Pedrok, Ziaurrizko eta Anotzibarko abadeak, dena sinistu (beste interes batzuk ez ote zituen?) eta Anotzibarko Mari Juana eta Grazia eta Miguel Zubiri, senar-emazteak, salatu zituen. (Antonio Zabalak "Xandua" deitzen zuten Mariatxo neska ere aipatzen du.)

Garai ilunak ziren, Inkisizio garaiak!

Mari Juanak txikitatik konbultsioak izan zituen (epilepsia akaso?). Familiak mila buelta eman zituen, konjuruak barne, gaitza desagerrarazteko, baina alferrik. Etiketa betiko eraman zuen. Sorgintzat jo zuten.

Graziari mezara ez joatea leporatu zioten. Sei urte zeramatzala gaixorik ez zuten kontuan hartu!

Eta zer egin zuen Miguel Zubirik? Rolderenakoak akelarretan txistua jotzen bide zuen eta sorgina zela aitortu zuen tortura pairatu ondoren.

Hirurak Iruñera eraman zituzten eta espetxera sartu zituzten. Torturak hasi ziren, orduan. Gutxirako balio izan zituzten Larramendiren hiru anotzibartarren aldeko hitzak!

50 urteko Mari Juanari eta Miguel Zubiriri garrotez hiltzea eta gorpua erretzea ezarri zieten zigor. Graziak helegitea aurkeztu zuen eta Logroñora bidali zuten ebazpena izan arte. Santu Ofizioak barkatu zuen, baina berandu ailegatu zen erabakia.

1575eko azaroaren 28an erre usaina ailegatu zen Anotzibarra.

Mari Juanari Taconerara lagundu zioten. Han hil eta gorpua erre zuten. Grazia eta Miguel Zubiri hilik zeuden jada, kartzelan hil ziren biak, Logroñon lehenengoa eta Iruñean bigarrena. Hala eta guztiz ere, Miguelen gorpua ere erre egin zuten Taconeran.

Gaur egun arrotzak egiten zaizkigu sinismen hauek. Baina gure historia da eta horregatik noizbehinka Mari Juana, Miguel eta Grazia burura etortzen zaizkigu. Anotzibarren panpina bat egin dugu (inkisidorea) eta inauterietan erre egiten dugu. Hori bai, haurrei zer gertatu zen kontatzen diegu.

Izan ere, gure errealitatean "sorginak" badaude eta "inkisidoreak" nortzuei deitu ere bururatzen zaigu!

Anotzibarkook".



▲ Antzerkia egin zuten Anotzibarko Ihoteetan



Eskualdeko familien babesak jaso du 0-3 urte plataformak

Elkarretaratzea egin zuten otsailaren 18an, Larraintzarren, 0-3 urte Plataformak deituta. Soldaten igoera eta ratioen jaitsiera eskatzen dute.

Pozik agertu dira Xinbili-Xanbala haur eskolatik, plataformak deituta, elkarretaratzeak izan duen babesarekin. Egun, haur eskolan haurrak dituztenak agertu baitziren, baina baita haur eskolatik pasa diren familiak ere.

“Oso kontent gaude erantzuna ikusita, honek indar handia ematen digu aurrera jarraitzeko, nahiz eta badakigun bide luze baten aurrean gaudela”, adierazi digu Maite Bertizek, Xinbili-Xanbalako langileak eta 0-3 urte plataformako kideak.

Adierazi dutenez, egungo ratioak jasangaitzak dira: urte bete baino gutxiagoko haurrei dagokionez, langile bakoitzeko 8 ume izan dezakete, gehienez, orain; bat eta bi urte bitarteko haurren kasuan, 12; eta bi eta hiru urte bitartekoetan, 16. Erdira jaitsi nahi dituzte ratio horiek. Aldi berean, soldataren igoera eskatzen dute, haien ardurarekin eta gaur egungo bizimoduarekin bat egiten duen soldata eskatzen dute.

Xinbili-Xanbalako haur eskolako langileek Bortziriak, Malerreka eta Baztango haur eskoletakoekin batu dira mobilizazioetan. Horiek Iruñetik kanpo zabaldu nahi baitituzte. Hurrengo elkarretaratzea Beran izanen da martxoaren 17an. Iruñean 15 egunean behin biltzen dira Nafarroako Parlamentuaren parean.



Elkarretaratzea egin zuten Larraintzarren otsailaren 18an ▲

Euskal Herriko Mus txapelketa, hurrengo geltokia: Zigoitia

Otsailaren 29an jokatu zuten Iruñeko finala, Irrintzi Elkartean, eta Iraizozko bikote batek txapeldunordea izan zen: Eneko Berasainek eta Patxi Etxeberriak osatzen dutena. Dena den, guztira, eskualdeko 9 bikote izan ziren bertan, herrietako kanporaketetan iraba-zi zutenak.

Iraizotzen, bi bikote sailkatu ziren: Pello Orbegozok eta Mikel Mariñelarenak osatzen dutena, eta Gorka Antolinek eta Miguel Huartek osatzen dutena. 11 bikoteren artean gailendu ziren.

Igoan, 4 bikoteren arteko lehia, Unai Martikorenak eta Aingeru Etaioek osatutako bikoteak irabazi zuen Iruñeko kanporaketarako sarrera.

Arostegin 12 bikotek parte hartu zuten txapelketaren aurreneko fase honetan, eta bi bikote sailkatu ziren: Eneko Berasain eta Patxi Etxeberria, alde batetik, eta Javi Ramos eta Ander Esain, bestetik.

Rikardo Arangoak eta Mikel Oltzak osatzen duten bikotea gailendu zen Gartzaronen, beste 5 bikoteri irabazita.

Bestalde, Latasan, bi bikote: Aritz Amador/ Harkaitz Arbizu eta Marzelo Beloki/ Joxe Azpiroz, guztira 11 bikote lehiatu ziren.

Bukatzeko, Orokietan, Edurne Arrazubik eta Edurne Arangoak osatzen duten bikotea irabazi zuen 4 bikoteren artean. Iruñeko irabazleekin batera, gainontzeko herrialdeetakoak ere ari dira ezagutzera ematen. Euskal Herriko finala jokatu dute Zigoitiako bailaran dagoen Gopegi herrian, Araban, martxoaren 14an.



Arostegin jokatuako kanporaketa ▲

Apirilaren 4an izanen da aurtengo Ultzama Trail mendi lasterketa

Ultzama Trail mendi lasterketaren lehen edizioak iaz izandako arrakastaren ondoren, Ultzamako Udalak jakitera eman du aurtengo lasterketaren data: apirilaren 4a. 130 korrikalarik hartu zuten parte iaz lasterketaren lehen edizioan. Ibilbide motza eta luzea jarri zituzten aukeran: 10 kilometroko mendi ibilbide laburra, eta 19 kilometroko luzea. 61 kirolarik eman zuten izena motzean eta 74 korrikalarik berriz luzean.

Aurtengo lasterketaren xehetasunak oraindik ez ditu jakitera eman Udalak, baina hurrengo asteetan informazio guztia haien webgunean eta sare sozialetan zabalduko dutela jakinarazi dute. Adi egon daitezela, beraz, gure eskualdeko lasterkariak. Iaz Mikel Beuntza ultzamarra bigarren postuan gelditu zen lasterketa luzean. Eguraldi bikaina izan zuten lasterkariek lehen edizio hartan, eta Tomas Goikoetxea alkoztarrak argazki ederrak egin zituen. Ea zer moduz ateratzen den aurtengo!



Eguraldia lagun izan zuten iazko edizioko lasterkariek

iritzia

"El euskera era una barrera prácticamente infranqueable para quienes lo desconocen"

"Un ejemplo claro es la discriminación para cubrir 110 plazas de celadores"



Zeladoreen deialdia, 811E/2019
Ebazpena

Hizkuntzen puntuazioa:

Alemana: 2 puntu

Frantsesa: 2 puntu

Ingelesa: 2 puntu

Euskara: 2,73 puntu eremu mistoan

?? puntu eremu "ez-euskaldunean"
(Osasunbideak ez du inoiz argitzen eremu horretan euskara baloratzen duen)

*** Eremu euskaldunean ez dago zeladore lanposturik.**

Denera, 100 puntu atera daitezke lan deialdian.

UGT euskaldunon kontra

Nondik heldu kontu honi? Zaila da gero erabat gezurra eta agerikoa den gauza bati heltzea! Hemen duzue aldamenen Jesus Javier Elizalde Esteban, "Secretario de Autonómico y Acción Sindical" delajartzen du Nafarroako UGTko internet orrian.

Eta hor duzue "Administración euskaraz" taldekoek zabalduko mezua. Nahiko garbi dago zenbateko balioa duen euskarak administrazioan sartzeko. Nafarroan hutsaren hurrengoa. Eta nola Elizalde horrek gezurra garbia botatzen duen.

UGT beti ari da aberatsen umeen alde lanean. Ingalaterrara beren umeak bidaltzeko diru aski dutenen alde. Aldiz, beti gure kontra ari da, euskara non zokoratuko, non mugatuko, non birrinduko duten asma ahalak egiten.

Nonbait, euskaldunok ez dugu eskubiderik, ez eta txikiena ere, Administrazioa euskaraz zuzentzeko, edo ahoz eta idatzizko harremanak euskaraz izateko. Ez al da hiritarra lehenik? Ez, UGTkoendako ez. UGT-k euskaldunok zokoratuko nahi gaitu.

Juan Aleman



Naizen elkarte

Adingabe transexualen errealitatera hurbiltzen

Badira zakila duten neskak eta bulba duten mutilak' izeneko kanpaina ezaguna gogoan izanen dute irakurle askok. Chrysallis Euskal Herria haur transexualen elkartetik duela bizpahiru urte abiatu zuten ekimena izan zen. Duela urtebete, estatu mailako Chrysallis elkartetik atera eta Euskal Herriko elkarte propioa sortu zuten: Naizen, Adingabe Transexualen Familien Elkarte. Otsailean Bea Sever izan genuen Esan Erran irratiko estudioan, sexologian aditua eta elkarteko familien arreta arduraduna. Errealitate horretara gehiago hurbiltzeko aukera eman zigun berak.

'Zer da transexualitatea?' galderari azkar erantzun zion Severrek: "Transexualitateaz hitz egiten dugu pertsonen sexuak kanpotik esleitzen zaionarekin bat egiten ez duenean. Normalean esleitzen zaigun sexua ezaugarri bakar batean oinarritua egoten da: kanpoko genitaletan". Zer esan nahi duen horrek? Bada, genital maskulinoak dituztenak automatikoki 'gizon' gisa sozializatuak izanen direla, eta genital femeninoak dituztenak berriz, 'emakume' gisa. Baina hori

askotan ez da betetzen, genitalek ez dute-eta sexu-identitatea zehazten. "Mila jaiotzetatik bat, gutxi gorabehera, ez da bat etortzen horrekin", zioen Severrek elkarrizketan.

Aurreiritzi okerrei planto

2018an atera zuen Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) transexualitatea buruko gaixotasunen zerrendatik.

Despatologizazioaren aurkako urteetako borrokaren ondorioz lortu zen garaipen hori. Baina osasunaren erakundeak egiten duena eginda ere, jendartean uste eta estereotipo okerrekin oraindik badiraute. Horrela dio Severrek: "Jendeak askotan pentsatzen duenaren kontrara, transexualitatea ez da erabaki bat, ezta denborarekin pasatuko den etapa bat ere". Horregatik, garrantzitsua da haur batek adierazten duenari arreta jartzea eta kasu egitea. "Soinekoa jantzi nahi duela? Bada, soinekoa nahi du. Ez dakigu transexualitate kasua izanen den edo besterik gabe soinekoak maite dituen mutiko bat den, baina egin diezaiogun kasu", gehitzen du.

"Zentzu horretan, genero portaera ez normatiboen inguruan geroz eta lanketa gehiago egiten da eskoletan, geroz eta gehiago lantzen da badirela futbola gustuko duten neskak eta panpinak gustuko dituzten mutilak". Baina aldi berean, transexualitatearen inguruan oraindik ezagutza falta handia dagoela uste du sexologian adituak: "Ezagutza behar da, baina ez bakarrik gizarte eta familiek, haurrek beraiek ere ezagutu behar dute errealitate hori existitzen dela, beren burua azaltzeko baliabideak eman behar zaizkie", dio.



Bea Sever Bilboko Aste Nagusiko pregoilari izan zen



Familia berriendako laguntza

2015ean sortu zen Chrysallis Euskal Herria 8 adingabe transexualen familiek bultzatuta. Bost urte hauetan, ordea, 150 familia baino gehiago izatera pasatu dira, eta elkartera geroz eta jende gehiago hurbiltzen dela azaldu digu Severrek. "Familia berri baten lehendabiziko hurbilketa dagoenean, saiatzen gara haien inguruko edota adin bertsuko haurra duen beste familiaren batekin harremanetan jartzen". Bizipenak elkarbanatzea eta lehendabiziko harremana egitea da aurreneko gauza. Familia guztien artean harreman estua dutela azaltzen du elkarteko koordinatzaileak: whatsapp taldeak dituzte, topaketak eta aisialdiko ekintza desberdinak egiten dituzte... "Oso polita da sortzen den lotura", dio.

Azken batean, haur eta gaztetxoak ongi egotea dute helburu, eta hori horrela izan dadin behar dituzten erreminta eskaintzea beraiei nahiz beraien ingurukoei. Esaterako, haur transexualitatearen inguruan prestakuntza eta hitzaldiak ere ematen dituzte: guraso elkarteetan, udalerrietan, gazte asanbladetan,... "Kanpotik askotan epaitzeko joera izaten dugu, baina zuzenean kasuren bat entzuten duzunean askoz errazagoa da ulertzea eta bere lekuan jartzea".

Familiei ez ezik, profesionalei ere eskaintzen dizkiete prestakuntza saioak, hala nola, gizarte hezitzaile, ikastetxe, osasun zentroko langile edota pediatriei. Elkartetik argi dute umeak identitatearen inguruan behin eta berriz adierazten duenari entzungor egiteak bere garapen emozionalean kalte handia sortzen ahal diola, horregatik da hain garrantzitsua hark esaten duena entzutea eta bide ematea.



▲ Adingabe Transexualen Familien Elkartea da Naizen

Elkartearen inguruan edo adingabe transexualen errealitateari buruz informazio gehiago jaso nahi dutenek naizen.eus webgunea bisitatzeko aukera dute. Bertan dago dena txukun eta modu ulerterrazean azalduta.



▲ Iaz aurkeztu zuten Naizen Elkartea





Bardoak txapelketaren finala, martxoaren 28an Lizarran

2012an abiatu zuen Nafarroako Bertsozale Elkartek lehen aldiz Bardoak, taldekako txapelketa. Geroztik, urtez urte handitzen joan den lehiaketa da taldekako hau. Aurten 13 taldek eman dute izena Bardoetan, guztira 96 parte-hartzaile dira. Gainera, Nafarroako eskualde ezberdinetako taldeak dira animatu direnak, hala nola Bortzirriak, Leitzaldea, Baztan, Malerreka, Sakana, Larraun, Iruñerria, Pirinio aldea, Lizarraldea... "Pixkanaka ikusten ari gara bertsolaritzaren mapa ere Nafarroan zehar hedatzen doala", azaldu zigun Esan Erranen Ander Perez Bertsozale Elkarteko kideak.

Bardoak txapelketaren atzean, bertsolariez gain bestelako jendea ere ari dela azaldu zigun Perezek: "Bertsolariez gain, hor kontuan izan behar da aurkezle lanetan ari den jendea, merenduak prestatzen dituztenak, aulkiak jartzen edota herrietan kartelak zabaltzen... bertsolaritzaren bueltan ari den jende guzti hori batzeko auzolan

handi bat dira Bardoak", zioen Bertsozale elkarteko kideak. Bardoetako saioen berezitasuna da tokian tokiko errealitateari lotutakoak direla, ostatu eta taberna girokoak, gertukoak eta informalak. Jendeak formatu hori ere gustura hartzen duela zioen Perezek.

Barañaingo talde horretan, gainera, badira Imozko sustraiak dituzten bi lagun: Sahats Ale-man eta Endika Legarra. Etxalekukoa da lehenaren familia, eta Goldarazkoa berriz bigarrenarena.

Gure eskualdean ere bai

Urtarrilaren 31n hasi zen aurtengo txapelketa Etxarrin (Larraun), eta martxoaren 28an bukatuko da Lizarran. Tarteko hilabete horietan Nafarroako herri askotara iritsi dira saioak: Txantrea, Iturmendi, Erro, Elgorriaga, Barañain, Bera, Otsagabia, Tuter, Aniz, Tafalla, Goizueta... eta baita gure eskualdera ere! Martxoaren 14an Jauntsaratsen

izanen da txapelketako finalaurreko saioetako bat, Udaletxeko ganbaran: Berako Lamixene eta Barañaingo Hego Haizea taldeak arituko dira bertan.

Aurreko urteetan talde parte-hartzaileen herrietan soilik egin zituzten saioak, baina aurtengo nobedadeetako bat izan da talderik ez daukaten herrietara kanporaketak zabaltzea. "Konturatu ginen taldeen herrietan soilik eginez ez ginela Nafarroako toki guztietara iristen, eta horregatik erabaki dugu aurten finalaurreko faseko sei saioak bestelako tokietan egitea".

Joana Ziganda Larraungo taldean

Oskozko (Imotz) Joana Ziganda bertsolariak ere hartu du parte aurtengo Bardoak txapelketan. **Larraun da Araitz. Bi dozena** taldearekin aritu da, eta Etxarrin urtarrilaren 31n eta Elgorriagan otsailaren 7an izan zituzten saioak. Lehiaketaren bigarren fasera pasatzerik ez zuten lortu, azkenean.



Bardoen aurkezpena

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna

Zer egiten duzu zuk
berdintasunagatik?

Batu zaitez

#Martxoak8

Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua





Iraolatarrak Arraitzen

Ramon Iraola Irazusta, gipuzkoarra edo probintzianoa, orduan hemen erraten zuten bezala, Asteasutik etorri zen. Ultzamako Udaleko paperetan Asteasun sortutzat ageri da. Hala ere, berez ez zen asteasuarra, larrauldarra baizik. Bere senide guziak ere, gazteena ezik, Larraulen sortu ziren eta ondoren, dirudienez, Asteasura pasatu zen familia osoa eta handik etorri zen Erramun gure artera.

Noiz etorri ote zen Nafarroara Erramun? Ez dakigu seguru, baina 1855. urtea baino aintzinago, urte honetan ezkondu baitzen Eratsungo alaba zen Micaela Landetxea Gastearenarekin.

Eta Lozenen izan zuten lehen bizilekua, bertako **Beitikoetxean**, maistar, eta han sortuko zitzaizkien lehen umeak, bortz. Eta ondoren Arraitzen bertze sei sortuko ziren.

1859an, maistarrak, Erramunek, Lozenjo jabeari prestamo bat eman zion, 16 ontzako urrea. Ordurako dirutzen hasi zen.

Erramun, paperetan beti ageri da zurgina bezala, baina aurki guk orain ematen diogun adieraren kontra, zerratzaila izanen zen (mendietan zerratzen zen garai hartan) Hori da guk uste duguna eta bere ondorengoa den Juan Mari Iraolak erraten duena: "mendi lanetan Mendizabal bere herriko batekin aritzen zen"

Maistar izateaz konforme ez eta etxe bat egitea pentsatu zuen. Iruñea-Irun errepidea ere ireki berri samarra zen eta Arraitza pasatu zen familia guzia, toki erosoago baten bila, eta errepidearen kontra egin zuen etxea. Hori 1867. urtean izan zen.

Etxea egiteko, prestamoetan emanak zituen diruak bildu, eta zorpean sartu zen, mailegu bat hartuz. Oraindik deus izan ez eta deus ezin hipotekatu. Dirua hartzeko Eltzaburuko bezino parrasta batek eta Auzako bik abalatu zuten. Nonbait Eltzaburu aldean zituen adiskideak.

Etxea egin, familia hazi eta gehiago ere egin zuen Erramunek, 1881-1882 urteetan dirua maileguz ematen ikusiko baitugu.

Hori gutxi balitz, maistar egon ziren Lozenjo etxea bere alor eta oihanarekin erosi zuen 1882. urtean. 42 ha-koa da (462 erregunerrikoa). 21.250 pzta zen orduko balioa, diru handia.

Indar gogorrean ziren iraolatarrak.

• BIGARREN GENERAZIOA (BELAUNALDIA)

Etixerako, umeetan zaharrena, Jose Miguel geldituko zen. **Erramunean** dirua izaki eta 1879an **Kondeneko** Arraizko etxalde hoberenetako bateko alabarekin ezkondu zen, Josefa Arrarats Ilarregirekin; parekoak parekoekin, hori zen araua. Biak ere gazteak ziren, 23 urtekoak. Baina ez zuten umerik izan eta **laster** alargundu zen Jose Miguel.

Bigarren ezkontza: 1895ean, 39 urtetan, bigarren aldiz ezkondu zen, Egozkueko **Domingoneko** alaba zen Francisca Laralde Larramendirekin, 20 urteko neskatxa gaztea. Eta honekin bai izanen zituela umeak: hamaika seme-alaba.

Horien artean bi apez, Ramon eta Claudio. Ramon 27 urtetan hil zen Mañeruko apez zela eta Claudio bere amatxiren herrira joan zen, Eratsuna, eta hil artio bertan biziko zen. Apez langile porrokatua. Apez lanetan eta bertze gisako lanetan, bere iloba Manolo Ezpondaren harrobi batean, almadenarekin harri xehatzen eta guzi!

Bi senide Argentinara joan ziren. Arreba bat, Amalia, berriz, Manolo Ezponda erremontistarekin ezkondu zen. Manolo hau erremontistaren semea zen, umezurtz gelditua eta apezetxean hazia.

Eta Gregorio, jakina, hirugarren belaunaldiko buru.



Gregorio Iraola Laralde, etxe berria egin zuena. ▲



• HIRUGARREN BELAUNALDIA

Gregorio, 1901. urtean sortua, 1935ean ezkondu zen eta honek ere **Kondeneko** alaba bat hartu zuen andretzat, Ageda Baraibar Arrarats. Baina nola den zoritxarra! Bi urte beranduago, erditzean hil zitzaion.

Eta bigarren ezkontzarako, ia 40 urte zituenean, Bizkarretako **Fernandoneko** alaba hartu zuen, Maria Josefa Azparren Urrutia.

Kontratista honek egin zuen etxe berria 1947. urtean, oraindik bataiatu gabea, **Iraolaren etxea** deitzen baitu jendeak.

Oihan kontratista zen, oso bizkorra, lagintza horretan Nafarroan handienetakoa: esate baterako, Anueko Zuriain-Saioan, hamar urtez aritu zen arbolak ateratzen, hamar urtez, eta 100 langile baino gehiagorekin. Lantegi ikaragarri hura ateratzeko kablea jarri zuen eta trunkoak Arraizko bentetako hurbileraino ekartzen zituzten, airez.

Azken oihana ere ez zuen ba toki oso erosoan atera, Urritzate eta Aritzakungoan ari izan baitzen, biak ere toki izugarri basak. Toki gutxi izanen da Nafarroan basagorik!

Bai, oraindik gaztea izan eta alzheimererra sartu zitzaion eta lana

utzi beharra izan zuen. Berrogeita hamar urte bertzerik ez zituen eta gizona ezindua! Hirurogeita bi urtetan hil zen.

Ez ziren garai onak izan **Iraolatarrenean**, baina, hala ere, izan zituzten lau umeak estudiora igorri zituzten: Maria Francisca, Donostiara, Jose Miguel eta Gregorio, Lekarozko kolegio famatura eta Juan Mari Iruñeko maristetara. Jose Miguel eta Gregorio ingeniari industrialak eta ekonomista izan ziren, hurrenez hurren.

• LAUGARREN BELAUNALDIA.

Etxeko segida, berriz, estudioak utzi eta, Juan Mari hartu zuen. Hau, beti behi gorri pirinearrekin aritu da lanean, behitegi eder bat egin zuelarik etxetik hurbil 1892an.

Lutxi Mendiburu Zubieta, Zugurramurdiko **Arburuako** alabarekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan dituzte: Gregorio, Eva eta Yon.

Orain, Gregorio bere semeak hartu du aitaren ondorengoa.

 **Txurdan**
 **Patxi Oskotz**



Iraolaren etxea ▲

Hiztegia

Maistar: Maizter

Errepidea: carretera

Mailegua: prestamo

Araua: regla

Almadena: borragisakoa, harria xehatzeko ibiltzen den mailua.

Umezurtza: huérfano

Hurrenez hurren: respectivamente

EZ ZEN BAKARRIK ETORRI.

Aipatu dugu nola Erramun Asteasutik etorri zen. Eta eratsundar batekin ezkondu eta Lozengo **Beitikoetxean** jarri zen bizitzen.

Garai berean, edo beretsuan, etorri ziren Miguel Mendizabal eta Baltasar Añorga ere Asteasu eta Zizurkildik Eugira, aizkora bana soinean zutelarik. Bertzerik gabe. Hori kontaktzen zen Eugin. Eta bertako **Zumietako** bi ahizpekin ezkondu eta hauek ere oihan lanetan aberastu ziren. Denak ere ameriketak Nafarroan egin zituzten.

Nolanahi gisa, Lozenen ikusiko dugu, oraindik ezkon aurretik Miguel Mendizabal, Erramunekin batera. Eta Mendizabalen alabatxo bat, lau hilabetekoa, Arraizko **Kondenean** 1871. urtean. Hor ongi aski ageri da Iraola, Mendizabal eta Kondenen artean bazela lotura hestua.

Mendizabalek etxe berri bat egin zuen Eugin. Honen seme bat notarioa izan zen Bergaran eta notario honen biloba Luis Maria Mendizabal Ostolaza, jesuita famatua, berriz, Arrupe, jesuita jeneralaren etsai porrokatua eta Toledoko Seminario kontserbadoreko fundatzailea eta bertze instituzio batzuen.

Eta Añorgak, hor utzi zuen **Baltaxar etxea** Eugin, eta bertan du sorlekua lehenik Uhartan edo gero Iruñean "El Panadero de Eugui" enpresak.

OHARRA: Arraizko familia honen berri atera ahal izateko eta aipatutako Eugikoenak, Nafarroako Errege Artxiboa eta Ultzamako Udaleko eta bertako Erregistroko dokumentazioa ikusi ahal izan dugu. Eta batez ere Juan Mari Iraolaren eta Don Emilio Linzoain zenaren azalpenak.



Larrintzarko Ostatua



Errezeta pausoz-pauso entzuteko

Gazta flana

Hilabete honetan Ultzamara jo dugu. Larrintzarko Ostatuan gehien eskatzen duten postrea da gazta flana, ez da harritzekoa, fin-fina egiten baitute bertan. Pulunpen haien sekretua ezagutu nahi izan dugu, eta Paula Elizondo bertako langileak erakutsi digu. Zuek ere saiatu zaitezkezte prestatzen, ez baita zaila. Adi!

OSAGIAK

5 arrautza

Litro erdi esnegain

250 gr filadelfia
gaztandegikoa

125 gr azukre

0,25 litro esne

Karamelo pixka bat

• PAUSOAK:

- 1) 5 arrautzak irabiatu.
- 2) Ondoren, esnegain litro erdia gehitu. Neurtzeko ezer ez badugu, kubata baso bat erabili daiteke, litro erdikoa izaten baita hori. Irabiatu.
- 3) Horri 0,25 litro esnea gehitu (Kubata baso baten erdia). Eta, berriz, irabiatu.
- 4) Bukatzeko, azukrea ere gehitu, eta irabiatu. Irabiagailua erabiliz pikorrik edo pinportarik ez agertzea ziurtatuko dugu.
- 5) Dena flan moldean bota, aurretik, karamelo pixka bat jarri dugun moldean. Gero, Maria bainuan egosi. Horretarako, ur bero-beroa jarri bandeja batean, eta moldea

gainean jarri (ur beroa moldea ia guztiz hartu beharko du, baina, betiere, gainezka egin gabe, ura nahasketan ezin baita sartu).

6) Maria bainuan egosi ondoren, honezkero, labean sartzeko prest dago. 130 gradutan jarriko dugu, eta ordu erdi utziko dugu.

7) Bukatzeko, bizpahiru ordu jarriko dugu hozkailuan, ongi hoztu eta loditasun egokia har dezan.

Aurkezteko prest dugu flan gazta! Larrintzarren bezala, masusta marmelada jarri diezaiokegu gainean, baita fruitu lehorren bat ere, goxo-goxoa zegoen prestatu zigutena! Eskerrik asko!

▼ Larrintzarko Ostatuko gazta flan ospetsua



▲ Larrintzarko Ostatuko kideek irakatsi ziguten gazta flana sukaldatzen



euskaraz kontatzea?

Kontatzen jakitea ez da euskaraz jakitea:

Kontatzen jakitea: kontatzen jakitea? Horra hor jakintzaren gailurra! Aitatxi erdaldun bat baino gehiago ezagutu izan dut bere bilobaz harro, ikastolara bidaltzen dutela eta. Ez dago gaizki, ongi dago. Euskaraz ikas lezake mutiko edo neskato horrek. Ikas lezake... baina zenbaitek ez du ikasten. Kontuz!

Kontatzen jakitea, kontatzen jakitea! Baina ezagutu izan dut aitatxi erdaldun bat baino gehiago, bere bilobak euskaraz badakiela niri azaltzeko, kontatzeko agindu izan diona:

-Dile a este Señor los numeros en euskara.

Eta biloba han hasten zaizu:

-Bat, bi, hiru...

Euskaraz jakitearen froga handiagorik nekez opatu daiteke dirudienez: bat, bi, hiru... eta ez daki deus gehiago. Gehienez ere zenbat urte dituen eta akabo!

Eta behin baino gehiagotan gertatu izan zait kontu hau.

Kontxo! Kontxo! Zeinen erraz ikasten den gure hizkuntza! Baina kontatzen jakitea ez da euskaraz jakitea.

Baina kontatzen jakitea euskaraz jakitea da:

Gaurko egunean, euskaraz kontuak ongi kontatzen dituen opatzea ez da erraza. Euskaraz ongi jakiteaz gain, euskaldun ederra izan behar baita eta baita kontalari bikaina ere. Hori bai, lehen lehenik euskaraz jakin, eta gero kontatzen.

Kontatzen jakitea euskaraz jakitea da, euskaraz kontatzen bada, jakina!

Gure aitatxi-amatxi maiteen artean kontalari bikainak ezagutu izan ditut, baina, banan-banan, hiltzen ari dira. Eta orain ere, ardo frexko bila bizirik diren gutxi horietara joan beharko dugu! Tamalez, ardo frexkoa eskasten ari zaigu! Horrengatik dut hain atsegin ardo frexkoa!



Txurdan

Hiztegia

Kontatu:

- 1) Gertatutako eta asmatutako zerbait aditzera eman, edo hitzez azaldu.
- 2) Numeroak, hitzez esan.

Froga: Zerbait egiaztatzeko balio duena. Edo gezurtatzeko, jakina.

Euskaldun ederra: euskaraz dotore mintzatzen dena.

Tamalez: Zoritxarrez



Indalecio Ojanguren-en fotografoaren argazkia. Euskaraz bikain zekiten amonak.



Latasako frontoia, emakume pilotarien elkargune

Asteazken arratsaldetan frontoian ohi baino mugimendu handiagoa egoten dela ohartu izan dira aspaldian Latasako (Imotz) herritarrek. Izan ere, emakume pilotari talde bat bertan biltzen da astero-astero euren entrenamenduak egiteko. Nortzuk diren jakin nahi?

“Zortzi neska inguru elkartzen gara entrenamenduetan, lau bat gaztetxo eta beste lau helduagoak”, azaldu digu Andrea Aldaregia Latasako pilotariak.

Gazteen artean Eulateko Olatz Ruiz de Larramendi, Uharteko Ane Mendiburu, Aresoko Erika Fernandez eta Altsasuko Udane Bergara aritzen dira pilotan. Helduak, berriz, Andrea Aldaregia bera, Eulateko Maite Ruiz de Larramendi, Leitzako Iera Agirre eta Berako Irantzu Etxebeste dira. “Imozko Udalak nire entrenamenduetarako uzten zidan frontoia, eta beste jokalariekin hasi nintzenean komentatu nien hemen egin genitzakeela, nahiko erdibidean dago gainera Latasa” dio jokalaria. Herriko jendeak gustura hartzen dituela azaldu digu, pozten direla haiek pilotan jokatzen ikustean eta partidetak ere hurbiltzen omen dira.

Hainbat txapelketatan hartzen dute parte Latasan entrenatzen duten neskek, horien artean duela lauzpabost urte martxan jarri zen Master Cup entzutetsuan. Maite Ruiz de Larramendi da aukeratzaila, eta jokatzeaz gain berak entrenatzen ditu gainontzekoak ere txapelketetarako. Sanferminetako pilota torneoan ere finala jokatu zuten Latasan biltzen direnetatik bik: Agirrek eta Ruiz de Larramendik. 22-21 irabazi zieten Oihana Orbegozok eta Iera

Agirrek Maite Ruiz de Larramendi eta Amaia Jakari, partida oso borrokatu eta interesgarrian. Iruñeko Labrit pilotalekua gainezka, jendeak kanpoan gelditu behar izan zuen toki gehiago ez zegoelako.

2020ko Master Cup-a martxan

Honezkero hasiak dira aurtengo Master Cup txapelketarekin. Aldaregiak, esaterako, otsailaren 22an izan zuen txapelketako lehen partida Berastegin, bertako Ane Urkizu bikote duela. “Duela hiru urte txapelketa sortu zenetik edizio guztietan hartu dut parte, bai binakakoetan eta baita banakakoetan ere”, azaldu digu. Txapelketa honek eta beste hainbatek azken urteetan asko egin dute emakumeen pilotaren ikusgarritasunaren alde, eta emakume pilotarien egoera hobetzeko bide horretan sakontzen jarraitu behar dela uste du Aldaregiak.

Haiek hasi zirenean gaur egun baino askoz emakume pilotari gutxiago zeudela azaltzen du, eta maila ere beste bat zela diote. “Aurten, esaterako, 98 pilotarik

eman dugu izena Master Cup-ean. Hori oso kopuru handia da!”. Garrantzitsua da, beraien ustez, gaur egungo neskato gazteek emakumeek ere pilotan jokatzen dutela ikustea, ereduak izan ditzaten eta eurek gustuko badute aukera hori txikitatiki izan dezaten. Aldaregiak ia hamar urtez utzi behar izan zuen pilota neskentzako aukerarik ez zegoelako. Lanean jarraitu beharko da istorioa errepika ez dadin.



▲ Maite Ruiz de Larramendi, Andrea Aldaregia, Iera Agirre eta Olatz Ruiz de Larramendi.



▲ Asteazkeneko Latasako frontoian entrenatzen duten nesketatik batzuk



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com

Zorionak Zorionak !



Zorionak Alaitz!!



Zorionak Niholina!!



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA



*eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote*

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburgesak...



Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburgesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



Energia transiziotik energia burujabetzara

Klima aldaketa hemen dago, dagoeneko ezin dugu ukatu edo ezikusiarena egin. Hemen eta mundu guztian jasaten ari gara klima aldaketaren ondorioak, eta beste behin ere, gutxien eragindako herrialde eta herritarrek pairatzen ari dituzte ondorioak latzenak. Mundu mailako erronka da, aurrekaririk gabekoa, eta horregatik, gizakiok emango dugun erantzuna, aurrekaririk gabekoa izan beharko du ere. Horretarako data jarri digute ere, 2030. urtea, alegia. Hasi da erlojuaren kontrako borroka: tik-tak, tik-tak,....

Energia jo mugan dago, energia sortzeko jatorri fosila duten erregaiei erabilera baita klima aldaketaren arduradun nagusia. Etxeak berotu, batetik bestera mugitu, etxean ditugun hamaika gailu funtzionarazi,... finean, mundua mugitzen duen indarra baita energia. Gure ongizaterako ezinbestekoa bihurtu dugu energia, baina honen gaineko kontrolak ordea, munduko miseria eta gaztaka askoren iturri da, hemendik milaka kilometrotara bada ere, hemengo ibilgailuak zein gure etxeko hainbat gailu abiarazten dituen.

Jatorri berriztagarriko energiaren kontsumoa omen da irtenbidea. Erregaifosilak jatorri berriztagarria duten energiez ordezkatu eta listo! Hortxe hamarkada honetako negozioa. Urre beltza, urre berde bilakatuta. Kanpotik garbia, barrutik orain artekoa bezain ustela. Mundu mailako ingurumen krisialdi garain gauden honetan, merchandising ezinhobeia egiteko aprosa, zalantzarik gabe.

Eta bai, energia berriztagarrien abantailak ukaezinak dira:

agortezinak dira, beren transformazioak ez du karbono dioxidorik isurtzen, erabiliko diren lekuan bertan ekoiztu daitezke,....

Baina ez ahaztu, gutxien kutsatzen duen energia, erabiltzen ez duguna da!

Kontsumoa gutxitzea beharrezkoa da eta hala ere, horrekin bakarrik, ez dugula aski badakigu. Bai teknologian eta bai gure bizimoduan ere, aldaketak ezinbestekoak dira. Energiaren transizioa gaurkotasan bihurtu da: albisteetan, erakunde publikoetan, enpresa pribatuetan,....

Energia ereduak gizarte mota ezberdinak sortzen ditu eta beraz, energia eredu nahitanahiez aldatu behar dugun honetan, herritarrok aukera aprobetxatu behar dugu, energiaren transizioaren eskutik gizartearen transizioa bait dator. Beraz, guk erabaki nahi badugu ze gizarte eredurantz abiatu nahi dugun, energiaren transizio soila baino ikuspegi zabalagoa behar dugu eta denon artean energia burujabetzaruntz pausu sendoak eman.

Eta zer esan nahi du honek? Kontsumitzen dugun energia guztia berriztagarria izatearekin ez dugula konformatu behar eta gure bizimodua ere baldintzatzen duten beste faktore hauek aintzat hartu behar ditugula.

Erronka potoloa aurrean duguna, zalantzarik gabe. Gizartea aldatzen ari da eta horrek eragin zuzena du Amaluraren. Ongi pentsa dezagun bada, ze bide hartu nahi dugun. Erakunde zein gizarte eskutik hartu eta erronka aukera bihurtu dezagun!



Gurutze

ENERGIA BERRIZTAGARRIA IZATEAZ GAIN KONTUTAN HARTU BEHARREKOAK, BESTEAK BESTE:

- Ekoizten den energia berriztagarria, kontsumitzen den lekuan bertan ekoiztea da aukerarik honena, garraioak ekidituz. Horrela, energia galerak eta honen garraioak eragiten dituen ingurumen kalteak sahiesten dira.

.....

- Energiarean autoekoizpena sustatu behar da, tokian-tokioa sortuz energia multinazionalen esku utzi beharrean. Erakunde publikoak energia ekoiztu eta komunitate energetikoak sortzea da energiaren ekoizpen eta horniduraren kudeaketa demokratikoena egiteko bidea. Energiaren oligopolioa gainditzea beharrezkoa dugu, multinazionalen menpe ez badugu bizi nahi.

.....

- Energia sortzeko azpiegitura berriak egitea ingurumenaren gaineko eragin handia dakar, horregatik kokalekua erabakitzerakoan gogoratu:

1

Emankorrak diren lurrak ekidin: eguzki - baratzeak ez gaituzte elikatzen, hobe eguzki teilatuak, ez?

2

Zuhaitzak haize-errotengatik ordezkatzek "Don Kixote"ren amets gaiztoa gurera ekar lezake ta epe gutxira erroten orde, erraldoi mamutxarrak ikustea. Basoak karbono-hustutegiak izanik, paradoxikoa, eta momenturen batean paranoikoa ere litzateke, karbono isurketak edikitzearen izenean basoak-soiltzea.

3

Beharrezkoak dira? Energia-eskaera dagoen tokitik gertu daude?



Lurraren

Hortzorea eginez, zaborra murritzu

Aurreko hilabetean komunean sartu ginen eta hortik ibiliko gara tarte batez, bertan metatzen baititugu gero edukiontzian doazen hainbat bilgarri. Saiatu al zarete esku zein gorputza garbitzeko xaboi poteei agur esaten eta xaboi-pastillez ordezkatzeko? Hala izatea espero dut, beste proposamen batekin natorkizue eta!

Ziur nago zuetako batek baino gehiagok noizbait galdetu diozuela zuen buruari hortzorea edo hortzetako pasta hodiak zer edukiontzitara bota behar

diren, birziklatzen ote diren... Batzuk plastikozkoak, besteak aluminiozkoak, gehienak plastiko mota bat baino gehiagoz egina. Eta hori gutxi balitz, asko eta asko kartoizko kutxa baten barruan ere! Egia esan, kutsatzen ez duen hondakin bakarra kontsumitzen ez dena da.

Lasai, ez dizuet esango hortzak garbitu behar ez direnik. Oraingo honetan, hortzorea egitera animatu nahi zaituztet. Hamaika modu ezberdin daude, baina nik sinpleena iruditzen zaidana azalduko dizuet, 5 minututan egin

daitekeena, eta beraz, bukatzen zaizuen aldioro egin dezakezuen.

Osagaiak: koko olio (3 koilarakada) eta bikarbonatoa (2 koilarakada). Proportzio hauek erabilia bakoitzak behar duen kantitatea egin dezake.

Jarraibideak: koko olio pixka bat berotu solidotik likidora pasatzeko haina eta ondoren bikarbonatoarekin nahastu. Listo, egina!! Ontzi batean gorde eta erabiltzeko prest!

Animatu eta frogatu!!!



▲ koko olio



Razkinen elkarrizketa akustikoa eta ipuinak idazteko tailerra

Pedro F. Razkin
(La Fugako abeslaria) Larraintzarren

• • • • •

Esan genuen bezala, El Drogasen kontzertu sorpresaren ostean saituko gara noiz edo noiz liburutegiaren eskutik eta ostiral kulturalen barnean, rock eta literatura nahasten eta artista gehiago gerturatzen gurera. Eta, horrexegatik, pasa den otsailaren 21ean Pedro F. Razkin, La Fuga rock talde ospetsuko abeslaria eta gitarjolea etorri zen Larraintzarko Gizarte Etxera bere lehen liburua, PEDRADAS izenekoa, aurkezttera.

Pedro F. Razkin La Fuga taldeko partaide da 2009tik, eta talde horrekin nahiz aurreko Mr. Fyling eta La banda magnética taldeekin 500 kontzertu baino gehiago eman ditu, eta hainbat herri eta kontinentetan egon da: Kolonia, Ekuador, Argentina... 10 urte herriz herri, atsedenaldik gabe. Bere azken geldialdia Ultzaman izan zen eta, musikari on bat denez bere gitarrarekin etorri zen eta liburuaren aurkezpenarekin batera dozena erdi abesti eskaini zizkigun modu akustikoan. Kaleratu berria du gainera Razkinek (horrela izendatu ditu lana eta proiektua: Razkin, hau da, bere bigarren abizenarekin, bere amaren omenez) bere lehenengo diska bakarlarri gisan, eta abagunea izan genuen kantu batzuk lehen aldiz entzuteko.

Tartean, Razkinek bere ogibidearen bitxikeriak kontatu zizkigun: nola prestatzen dituen bere kantak edo idazten dituen bere olerkiak eta mikroerrelatoak (aitortu

zигun, adibidez, askotan bukatzea edo moldatzea lortu ez zituen abestiak direla), nolakoa den rock talde baten bizitza errepidean (familia bezalakoa, bere irribarre eta eztabaidekin) edo bere nortasunaren sekretuak (oso despistatua dela; adibidez etorri zen alkandora alderantziz jarrita eta gitarra jotzeko puarik gabe, baina konpondu zuen txanpon bat erabiliz, Brian May, Queen taldeko kitarra jotzaile handiaren moduan).

Libururari dagonionez, Madrilgo, edo hobe esanda Vallekasko Errepublikako Desacorde argitaletxeak plazaratu du. Desacordek musikariek idatzitako liburuak baino ez ditu argitaratzen (besteak beste, El Drogas, Kutxi Romero, Miren Lacalle, Fortu, Obus taldekoa...). El Gran Wyomingek, Razkinen lagun minak, idatzi du hitzaurrea, eta ilustrazioak Arantxa F. Razkinenak dira, hau da, La Fugako abeslariaren arrebanenak.


Musika, denboraren joana (Razkinek ileurdinetan neurtzen du), edo poesia soziala dira Pedradas liburuan aurkituko ditugu gaiak. Eta liburutegian prest dago maileguan hartzeko ale bat.

Laburbilduz, berriro kontzertu, edo elkarrizketa akustiko intimo bat izan zen (publikoak aukera izan zuen galdetzeko bere zalantzak eta kuriosetateak eta baita bere abestirik kutunenak eskatzeko).

Azkena ez izatea espero dugu!



Otsailean La Fuga taldeko Pedro F. Razkin abeslariak bere lehenengo olerki liburua aurkeztuko du, Pedradas.





Ipuin edo mikroipuin bat sortu nahi duzu?



“Altxatu zenean, dinosauroak hor jarraitzen zuen”. Dudarik gabe, Augusto Monterrosoren mikroipuin hau ospetsuenetako bat da. Esaldi motz bakar batean mundu bat dago, irakurleak bete behar duena. Erraza ematen du baina... nola lortzen da, zer behar du ipuin batek unibertsa bihurtzeko edo, behintzat, besteen jakinmina pizteko?

Denok izan dugu noizbehinka istorio bat kontatzeko nahia, asmatua edo guri gertatukoa, edo betidanik familian edo ezagunen artean entzundakoa... baina ez dugu jakin nola eraman paperera.

Datorren martxoaren 27an liburutegian egingo dugu literatura tailer bat ipuinak edo mikroipuinak idazteko tresnak ezagutzeko: nola hasi eta bukatu ipuinak, ze gai aukeratu, nola kontatu (lehengo, hirugarren pertsonan?)... Tailer expres bat izango da, helduentzat bideratua eta Patxi Irurzun idazle eta liburuzainak -eta, ejem, ejem, testu honen egileak- kudeatua.

Tailerraren helburua, besteak beste (ez gara bihurtuko Nobel saridunak, baina agian lortuko dugu istorio bat sortzeko poztasuna), datorren hilean,

liburuaren egunarekin batera (apirilaren 23an), irakurketa batean, liburutegian istoria guztiak partekatzea da- tailerean sortutako istoriak baina baita etxean eginak nahi duenaren partetik ere; eta edozein motatako lanak, biografikoak, fantastikoak, beldurrezkoak, umorezkoak, motzak, luzeak-, eta posible baldin bada liburuxka bat sortzea lanak ezagutarazteko.

Prestatu, beraz, tresnak -irudimena, originaltasuna,...- eta zatoz tailerrera!

 **Patxi Irurzun**
Ultzamako liburuzaina

Ipuinak idazten ikasteko tailerra egingen dute liburutegian ▼



2019ko urtarrila

2020ko ilbeltzean gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

ULTZAMA Alkotz

Unai Arraztoa Latasa, ilbeltzaren 2an sortu zen, Borja eta Mirenen semea.



▲ Unai etorri zaigu Alkotza

Orkin

Izar Ziganda Ibarra, ilbeltzaren 18an sortu zen, **Migelenen**. Gurasoak: Imanol eta Arantxa.



▲ Izar bere anaia Xamaiekin

“Zorionak gurasoei”

Ezkontzak

Ilbeltzean, guk dakigula, ezkontzarik ez dugu izan.

“Gure oroimenean izanen zarete”

Heriotzak:

ANUE Olague

Carmen Huarritz Regueiro, ilbetzaren 3an hil zen, 75 urtetan. **Txankarneko** etxeakoandrea.



▲ Carmen Huarritz

IMOTZ Etxaleku


Josefa Aldaregia Igeltz, ilbeltzaren 23an hil zen, 97 urtetan. **Mikeleneko** alaba.



▲ Joxepa Aldaregia

ULTZAMA Iraizotz

Miguel Etxart Lizaso, ilbeltzaren 9an zendu zen, 76 urtetan. Benjamin Olaitz Lizaso, ilbeltzaren 10ean hil zen, 89 urtetan. **Beitikoetxeko** nagusia.



▲ Benjamin Olaitz

Lizaso

Maria Josefa Zestau Zestau, ilbeltzaren 24an hil zen, V. Artolaren andrea.

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



ESAN ERRAN IRRATIKO PROGRAMAZIOA

2020 denboraldia

ordua	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
00-05	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia
05-07	Argi ibili	Argi ibili	Argi ibili	Argi ibili	Argi ibili	Musika lasaia	Musika lasaia
07-08:30	Faktoria	Faktoria	Faktoria	Faktoria	Faktoria	Musika lasaia	Musika lasaia
08:30-10	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	09:00 Landaberri	09:00 Goiz kronika 09:30 Osasun Etxea
10-11	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO KANTUZ	AMARAUNA	AMARAUNA
11-13:30	11:00-13:00 Faktoria	11:00-13:00 Faktoria	11:00-13:00 Faktoria	11:00-13:00 Faktoria	11:00-13:00 Faktoria	AMARAUNA	AMARAUNA
	13:00-13:30 Goizak gaur Albistegia	13:00-13:30 Goizak gaur Albistegia	13:00-13:30 Goizak gaur Albistegia	13:00-13:30 Goizak gaur Albistegia	13:00-13:30 Goizak gaur Albistegia	12:00 Naiz Irratia zuzenean	12:00 Naiz Irratia zuzenean
13:30 14:30	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO KANTUZ	14:00 Bertsoinka	14:00 Musika
14:30 15:30	Reggae Fever	Beste bat	Beste bat	Beste bat	Beste bat	15:00 Naiz Irratia zuzenean	15:00 Soinugela
15:30-16	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Naiz Irratia zuzenean	Soinugela
16-18	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Berria FM / Lur eta Murmur 17:00 Musika	Soinugela 17:00 Musika
18-19	Hiru Kortxea	Piperpolis	Kultur kubo	Piperpolis	Nola aldatzen diren gauzak	Musika	Musika
19-20	Hiru Kortxea	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika
20-21	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO KANTUZ	20:40 Portobello	20:40 Portobello
21-22	Atalka	Erro Ta Berri	Zuria Beltzez	ABDak	Zarata Zarautz	Portobello	Musika lasaia 21:30 Booktegiko irakurketak
22	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia

ESAN ERRAN IRRATIA: Egun Ero magazina, Egun Ero Kantuz saio berezia eta Esan Erraneko musika

ARROSA SAREKO IRRATIAK: Naiz Irratia, Xorroxin, Bilbo Hiria Irratia, Hala Bedi, Txapa Irratia, Radiokultura, 97 Irratia eta Arraio Irratia

EUSKADI IRRATIA

EUSKALERRIA IRRATIA: Metropoli Forala

BESTEAK...: Booktegi.eus-eko irakurketak eta Berria.eus-eko Berria FM